

# BERTSO PAPERAK

## HERNANI ZAHARRAREN ALDAKETA

- (1) Mutil koskor bat Zizurkiletik heldu nintzan Hernanira, ta harrituta ipini nintzan herri zar honi begira, tranbia ere ikusi nuan sartzen herrian erdira, gaur galdetzen det garai hartako edertasunak non dira?
- (2) Garai hartako edertasuna nolabait galdu genduan, herri-hizkuntza ta herri-bizitza genitun gure onduan, alkartasun bat ederra eta tranbia-re bagenduan, jakin nahi nuke patxada hura ea nork eraman duan.
- (3) Tranbia kendu ziguten eta hortik dator aldakuntza, ta ezagutzen ez gendun asko sartu zan gero honuntza, etxez beteta ikusten da gaur orduan zana baratza, derrigorrez gaur negarrez dago Hernani zure bihotza.
- (4) Zarren etxea egin zen eta baita-re kirolegia, beharrezkoak ziraden biak esatezkero egia, ilun zegoen herri batean berriz pistu da argia, orain berriro ikusitzen det etorbide bat garbia.
- (5) Len Tilos-Ezki dantza lekua besterik inon ez huan, orain Young Play-en ibiltzen dituk Galarretako auzuan, gazte asko hor eroritzen dek ustegabeaz lazuan, saiatu-arren, beiñe atera ezin leiken arazuan.
- (6) Hor Galarretan Jai Alai deitzen dioten frontoi maitia, pelota maite duten gehienak horrera joaten baitia, han jokutzen da pelota xeztaz izena du remontia, iruditzen zait horixe dala askoren errematia.
- (7) Autobia-re egin dute-ta hauek dira aldakuntzak, batzuentzako ziara gaizki bestientzako laguntzak, tren bizkorra-re badator eta ondo beiratu bakoitzak, laister urrea balioko du Hernani zure arkaitzak.
- (8) Orain artian herri zar hontan gu bizi ginaden jator, eta merezi dituan gauzak garbi esatera nator, leno tranbia bagendun baino orain tren bizkorra dator, hontaz aurrera sagardoteira laister joango gera hor.
- (9) Txantxilla kendu ziguten eta Zubipe dute egina, Txantxilla zegoen lekuan berriz kotxe leku atsegina, etzait iruitzen egin dan lana izan denik hutsegina, nere iritziz hori izan da egin dan gauza haundina.
- (10) Urte batzutan ikusi degu herri zar honen mudantza, gauza bat kendu bestea jarri hor izan da aldakuntza, baina oraindik gurekin degu herri hontako hizkuntza, aurrera ere bata bestea egin zaiogun laguntza.
- (11) Gazte jendeak par egingo du neri gauz hauek entzunik, esango dute gizon zar honek ez ote daukan zentzunik, baina ez pentsa par-aldi horrek ez duala erantzunik, gure denboran etzan izaten holako errestasunik.

*Joxe Mari Ormazabal "Tturko"*